

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizen ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza-deialdian itxarote-zerrendan geratutakoei laguntzak emateko ebazpena, soberakinak egoteagatik. 2018. urtea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2018ko abenduaren 17an emandako ebazpena, zeinaren bidez ostalaritzako enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza-deialdiaren baitan itxarote zerrendan geratu ziren enpresei laguntzak ematea ebatzi baitzuen, soberakinak zeudelako. Hauxe da ebazpenaren edukia:

I. Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizen ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoen udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa — 2018ko maiatzaren 14ko ALHAO, 55. zk. —, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 50.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2018ko ekitaldira luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

II. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren udal Sailaren zinegotzi ordezkariak deialdia 2018ko urriaren 19an ebatzi zuen. Itxarote-zerrenda ere sortu zen, betekizunak bete arren laguntzetarako dirua agortu izanagatik laguntzarik gabe geratutako eskatzaileek osatuta, merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko 2018ko laguntza-deialdian–2018ko azaroaren 7ko ALHAO, 128 zk– saldoa soberan geratuz gero, ostalaritzako laguntza hauetarako baliatzeko.

III. Gasteizen 2018an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorrean enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza-deialdian 29.924,80 euroko soberakina egonik, merkataritzaren udal zerbitzuko teknikariek kopuru hori Gasteizen ostalaritza arloko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko deialdian itxarote zerrendan geratutako enpresei laguntzeko baliatzearen aldeko txostena egin dute.

6. oinarrian eta laguntza-deialdi horiek onesten dituen Tokiko Gobernu Batzarraren erabakietan ezarritako prozedurari jarraituz, soberakinik egonez gero, baimendu egiten da horiek dotazio ekonomiko nahikoa izan ez eta itxarote zerrendan geratutakoei emateko baliatzea.

Egiatzatu egin da badela soberakinik (29.924,80 euro) Gasteizen 2018an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloko enpresa txikiak sortu eta modernizatzeko laguntza-programako aurrekontu-zuzkiduran, 2018ra luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebatzea.

Horrenbestez, nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2018ko apirilaren 27ko erabakia dela medio, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak,

Ebatzi du

Lehenengoa. Deialdiaren baldintzak betetzen direla eta Gasteizen 2018an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloko enpresa txikiak sortu eta modernizatzeko laguntza-deialdian hogeita bederatzita mila bederatzita ehun eta hogeita lau euro eta laurogei zentimoko (29.924,80 euro) soberakin ekonomikoa dagoela egiaztatuta, horren kontura esleitzea Gasteizko udalerrian ostalaritza arloko enpresa txikiak sortu eta modernizatzeko laguntza hauek itxarote zerrendan geratutako enpresa hauei, adierazitako zenbatekoetan.

Zenbakia	Eskatzailea	Falta den diru-laguntza	Lortutako diru-laguntza
1	Capagrana 10 S.L.	2.733,18 euro	2.733,18 euro
2	Qbosq Araba S.L.	8.000,00 euro	8.000,00 euro
3	Urban Rock Concept S. Coop. Pequeña	8.000,00 euro	8.000,00 euro
4	Ohmalbec Quiche S.L.	8.000,00 euro	8.000,00 euro
5	Falken Beer Club S.L.	4.991,07 euro	3.191,62 euro
		31.724,25 euro	29.924,80 euro

Bigarrena. Laguntza horien zenbatekoa (29.924,80 euro) jasota uztea 2018ra luzatutako udal aurrekontuetako 0822.4314.489.64 partidan izandako soberakinen kontura — Gasteizen 2018an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen arloko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza deialdia; esku-hartze erreferentzia: 2018/GG/08/55)—, eta onuradunei ordaintzea, deialdiaren 6. eta 12. oinarrietan xedatutakoarekin bat.

Hirugarrena. Merkataritza sustatzeko udal zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren erantzule.

Laugarrena. Diru-laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Interesdunei ebazpenaren berri ematea iragarkia ALHAOn argitaratuta, eta orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazteko iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, ebazpena eman duen organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.”

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 18an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI